Gure proiektuetan txertatu dugun sexu eta genero ikuspegiak, bertan parte hartzen dugun guztioi sexu-genero sistema orain arte interpretatzeko izan dugun ikuspegi binarioa gaingintzeko aukera eman digu, eta ematen jarraituko digu. Horrela, gure egunerokotasunean, lesbiana, gay, transexual, transgenero, bisexual eta intersexual edo bestelako genero ikuspegiak ulertzeko gure egunerokotasunean hainbat analisi txertatu behar izan digutu, Egun gure esku dugun errealitatean erroka ezberdinak planteatzera garamatzatenak

Horrek, gainera, bakoitzak bere genero identitatea edo orientazio sexuala askatasunez eta herritartasun osoz bizitzeko mekanismoak eta estrategiak garatzeko aukera emago digu, bereziki askatasunez bizi ezin duten lurralde horietan.

Aniztasun horretaz abiatuta, gizarte justuago eta berdintasunezkoen alde lanean jarraitzen dugu. Lagunduko al diguzu?



**"GUATEMALAN ZEIN
EUSKAL HERRIAN EGITEN
DITUGUN PROIEKTUETAN
GENERO ETA SEXU
ANIZTASUNA ONARTZEN
DITUGU"**

FINANTZIAZIO ETA PROIEKTUAK

Lagun Artean lanean dabil urtez urte, Gizarte Eraldaketarako Lankidetzako eta Hezkuntzarako proiektuak babesten, emakumezkoei ere badagozkigun botere harremanak aldatzeko eta giza eskubideak egiazko bilakatzeko,

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Getxoko Udalaren eta Leioako Udalaren laguntzari esker, Guatemalan zenbait prozesutan laguntzen dugu. Horien bidez, emakumeen behar praktikoen eta interes estrategikoen, haien baldintzen eta posizioen, partaidetza mailen, eraldaketa potentzialaren analisitik eta erakundeen azterketatik abiatuta, gizartearen eraldaketa errazten saiatzen gara, pertsona guztientzako mundu justuago eta berdinzaleago bat lortu ahal izateko. Hori guztia ezinezkoa izango litzateke prozesuan gurekin elkarlanean aritzen diren tokiko erakundeek babestuko ez balituzkete. Horien artean Oxlajuj E, CEIBA, CEDEPEM eta abar daude.

Euskal Herrian, aipatutako finantzatzaile publikoen laguntzak, Guatemalako emakume anitzen egoera ikuspegi feminista eta dekolonial batetik Euskal Herriraino ekartzeko aukera ematen digu. Guzti hori, haien borroketatik, beharren eta interesen inguruan dituzten hausnarketa ezberdinetatik. Guatemalako emakumeek zuzendutako ahalduntze prozesuak erreferentziatzen hartuz, Guatemalaren eta Euskal Herriaren artean ekimen eta aliantza berriak sortu ahal izango ditugu, euskal herritarrek horietatik ikasteko.

Aurrerago parada izango duzue proiektu horiek hobeto ezagutzeko, elkarrekin egiten duen lana gertuagotik ikusi ahal izateko eta EA-LAren lan ildoak zeintzuk diren jakiteko.

Lerro hauen azpian azken bi urtetan onartutako proiektuen eta momentuan martxan ditugun horien laburpen bat utzi dugu. Horien berri ere emango dizuegu.

GARAPENERAKO LANKIDETZA			
FINANTZATZAILEA	TOKIKO ERAKUNDEA	IRAUPENA (hilabeteak)	DIRU-LAGUNTZA
GETXO UDALA	OXLAJUU E	12	29.000€
BFA	OXLAJUU E	24	120.000€
BFA	CEIBA	12	9.930,18€

GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNZA		
FINANTZATZAILEA	IRAUPENA (hilabeteak)	DIRU-LAGUNTZA
BFA	12	42.008€
GUZTIZKOA		200.938,18€

2017

2018			
GARAPENERAKO LANKIDETZA			
FINANTZATZAILEA	TOKIKO ERAKUNDEA	IRAUPENA (hilabeteak)	DIRU-LAGUNTZA
GETXO UDALA	CEDEPEM	12	29.000€
LEIOA UDALA	CEDEPEM	12	18.000€
BFA	CEIBA	18	120.000€

GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNZA		
FINANTZATZAILEA	IRAUPENA (hilabeteak)	DIRU-LAGUNTZA
BFA	12	44.986,84€
GLEA	24	222.879,73€
DV de DDHH	10	3.900€

EA-LAko GENERO DIAGNOSTIKOA		
FINANTZATZAILEA	IRAUPENA (hilabeteak)	DIRU-LAGUNTZA
GLEA	18	39.020,69€
GUZTIZKOA		477.787,26€

1-EMAKUMEEN ETA NESKEN AHALDUNTZEA



EA-LA Elkarteak emakumeen ahalduntze osorako prozesuetan laguntzen du, alor politikoan, sozialean, pertsonalean, komunitatekoan eta ekonomikoan. Horretarako, gure bazkideak biltzeko espazio beharrezkoak sortzea sustatzen dugu, bertan bildu daitezten, ikasi dezaten eta esperientziak partekatu ditzaten, horrek laguntzen baitie beren gaitasunak eta ezagutza produktiboak, antolakuntzakoak, politikoak eta sozioekonomikoak indartzen. Hori guztia egiteko, emakumeen eta nesken aurkako indarkeria ezabatzeko prozesuak sustatzen ditugu, gure bazkideek beren garapenerako ezarritako bidea errespetatuz. Funtsean, bide hori da indarkeriarik gabe bizi ahal izatea, elikadura egokia izateko eskubidea izatea, osasunerako eta nutriziorako eskubidea, partaidetza politikoa, hezkuntza, lurzorurako sarbidea, lana eta ingurumena. Horrela, emakumeen ahalduntze sozioekonomikoan laguntzen dugu, ikusgarriak izan daitezten nekazaritzako zereginean eta beren eskubideen borrokan, baita erabakiak hartzeko guneetan duten partaidetzan ere.

Erakundean garbi dugu, lan horretan aurrera egin ahal izateko, ezinbestekoa dela gizarte eredu zapaltzaile eta patriarkala sustatzen eta betiketzen duten egitura sozialean eragitea, hark emakumea esparru domestikora lotzen baitu, komunitateko jardueran zeregin bakarra erreprodukzioa izanda. Hori lortzeko eta aldaketaren alde borrokatzeko urrats garrantzitsu bat gizon gazteak sentibilizatze prozesuan lan egitea da, estrategia horrek aukera ematen baitu eredu androzentriko horiek betiketzeari uztea eta, horrela, beste maskulinitate eredu batzuk ulertzea eta eraikitzea erraztea, egitura sozial justuago eta berdinzaleagoak ekarri ditzaketanak.

-ELIKADURA BURUJABETZA-

EA-LAn gure proiektuen bitartez, lurraldearekiko eta haren aberastasunarekiko errespetuaren eta tokiko garapen ekonomikoaren alde lan egiten duten landa inguruetakoko erakunde desberdinetako bazkidee lagundu egiten diegu.

Horrela, antzinako ezagutzak berreskuratzeko prozesuak bultzatzen ditugu, tokiko haziak ereiteko, eta elikadura segurtasuna eta burujabetza sustatzeko.

Azkenik, agroekologia, kontsumo arduratsua eta elikadura burujabetza sustatzen dugu tokiko gaitasunak eta baliabideak bultzatuz, ekoizpenaren ezaugarri kulturalak eta populazioaren kontsumoarenak errespetatuz. Beraz, monolaborantzaren ordez agrodibertsifikazioa sustatuz, ingurumen inpaktua murrizten dugu, eta erdigunean pertsonak eta giza eskubideak jartzen ditugu.

Gehienbat Sololáko departamentuan egiten dugu lan, bertan jarduera ekonomiko garrantzitsuena baita lurra jorratzea, nekazaritzako ekoizpenaren bidez, eta hura delako elikagaien hornidura iturri nagusia.



OXLAJUI E EMAKUME MAIEN ELKARTEA

EMAKUME KAQCHIKEL MAIAK LURRALDEAREN, GORPUTZAREN ETA LURRAREN AHALDUNTZE OSOA ETA DEFENTSA INDARTZEN, SOLOLÁ, GUATEMALA.



Oxlajui E Emakume Maien Elkarte:

Laborantzaren, amarantoaren prozesamenduaren eta eraldaketaren erreferentzia bat da Sololán, eta ingurumenarekiko errespetuzko teknikekin eta antzinako jakintzak berreskuratzen egiten dute lan.

Lanean eman dituzten urteetan, Oxlajui E elkarteko emakumeek, familiako partzelak lantzeko aukera lortu dute, eta bertan nekazaritza dibertsifikatuaren printzipioak aplikatzen dituzte, amarantoa eta bertako beste espezie batzuk landatuz, adibidez: patata, ahukatea, errefaua eta abar, baita sendabelarrak ere.

Horrela, familiaren ekoizpenaren nutrizio ekarpena handitzen laguntzen da. Emakumeen eta haien seme-alaben elikaduraren zati handi bat beraiek beren lurretan landatu dezaketaren mende dago.

**Amarantoaren haziek nutrizio balio handia dute, eta osasuna hobetzen laguntzen duten ezaugarriak dituzte. Odoleko glukosa, arterien presioa eta kolesterola murrizten laguntzen dute eta, gainera, antioxidatzaileak dira.*

Honako hauen bidez egiten dute:

- Emakumeek ekoizle moduan dituzten gaitasunak indartzen dituzte. Eskuratutako ezaugarriak praktikan jartzen dituzte eta tresnak sortzen dituzte elikadura burujabetza aldarrikatzeko eta finkatzeko.
- Familiako ekonomiari egindako ekarpena eta nutrizio ekarpenari ekarritako hobekuntza komunitatean aitortzea.
- Ekoizpenaren soberakinak merkaturatzea, emakumeen autonomia ekonomikoa hobetzeko.

KOMUNITATEA SUSTATZEKO ETA GARATZEKO ELKARTEA -CEIBA-

EMAKUMEAK SAREAN SOLOLÁKO EMAKUMEA AHALDUNTZEN BIZITZA ONERANZKO EKONOMIA JASANGARRI BATETIK. SOLOLÁ - GUATEMALA.

CEIBAk komunitateen ahalduntzea erraztu egiten du, kultura eta dibertsitate biologikoa berreskuratuz eta balioetsiz, baita prestakuntzaren eta komunitateko lidergoak indartzearen bidez ere. Horrez gain, ezin zenbatuzkoak dira ekoizpen agroekologikoaren, komunitateko osasunaren, lurraldearen defentsaren eta landa gunetako emakumeen sustapenaren alorretan egindako ekarpenak. CEIBAK, urte hauetan guztietan, ipar mendebaldeko herrialdeei eta Guatemalako hego kostako milaka pertsonari .bizitza aldatu die.

Horrela egiten dute:

- Amarantoa emakumeen talde autokudeatuen ekoizpenean sartuz. Aholkularitza eta jarraipen hurbila amarantoa ereiten, jorratzen, uzta jasotzen, garbitzen eta biltegitratzen.
- Partzela oso agroekologikoak sartuz, elikadura burujabetzaren eta garapen jasangarriaren printzipioei jarraituz.
- Leku askotako ekoizleen artean, Nekazaritzako eta abeltzaintzako eta agroekologiako esperientziak partekatuz.
- Agroekologiaren inguruko foroetan parte hartuz; alor horretan, nazio eta nazioarteko proiektzioa duten elkarten eta sareen harremana indartzeko, emakumeek elikadura burujabetzan eta agroekologian duten zeregina nabarmentzea ezinbestekoa da.
- Jasangarritasun eskolak: lehen hezkuntzako, oinarrizko hezkuntzako eta hezkuntza dibertsifikatuko neska-mutilekin eta emakume eta gizonekin lantzen den proiektu bat da. Bertan, genero ikuspegitik, produktibitatea eta garapena ikasgai bezala ematen da. Honako hauek dira eskola horien **helburuak**:

1.Pentsamendu kritikoaren haztegiak, testuinguruari eta errealitateari begira, sortzea, eta txikitatik eta gaztetatik haien komunitateetan, udalerrian eta nazio mailan zer gertatzen den ezagutu dezaten, eta jakin dezatela ere nazioarteko neurri eta sistema ekonomikoek zein inpaktu dakarten, eta horren kontzientzia hartzea.

2.Prozesuan parte hartzen dutenek elikagaiak ekoizteko kultura ez galtzea. Izan ere, Guatemala herri nekazaria izan da, gehienbat, eta historikoki bere elikagaiak sortzeko gaitasuna izan du. Gero eta gutxiago dira, ordea, horretan dihardutenak, transnazionalen eta merkataritza askearen hitzarmenen ondorioz, baita ekoizle txikiei, landatarrei, eman zaien balio txikiaren eta mespretxuaren ondorioz ere.



-EMAKUMEZKOEN KONTRAKO INDARKERIA-



"EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA JARRAITZEN DUEN BITARTEAN, EZ DUGU ESKUBIDE BERDINTASUNIK LORTUKO"

Emakumezkoen kontrako indarkeria, historikoki gizonen eta emakumeen artean ezberdinak izan diren botere harremanen adierazpena izan da. Gizonak hura baztertzea, eta haren garapena oztopatzeak emakumearen menderakuntza ekarri du.

Feminizidioak dira mendez mende hezkuntzak, erlijioak eta Estatuak elkarrekin betikotu duten ideologia patriarkalaren emaitza larriena. Ideologiak horrek oraindik ere indartsu irauten du emakumeenganako diskriminazioa eta gutxiespena sostengatzen duten pertzepzio eta jarrera matxistetan, haiek kontrolatzeko eta zapaltzeko mekanismo kultural moduan.

Indarkeria, beraz, boterearen tresna gako bat da emakumeak azpiratzeko eta menderatzeko. Indar patriarkalaren adierazpen muturrekoenean, feminizidio bihurtzen da: sozialki beharrezkoa den ekintza bat, menderakuntza maskulinoaren *statu quo*a mantentzen lagatzen duena.

Guatemalako kasuan, hain justu, gainera, ezin da egungo feminizidioaz hitz egin gerran emakumeek jasan duten indarkeria kontuan hartu gabe; izan ere, kasu askotan, gerran emakumeen aurka erabilitako indarkeria eta egun bizi dutenak hantz hadia dute eta. Horrek erakusten du porrota izan dela iraganarekin eta gerra zibilean gertatutakoarekin adiskide. Horri gehitzen badiogu emakumeak bake prozesutik kanpo utzi zirela, zaila izango da Guatemalako gizartean emakumearen aurkako bazterkeriaren jarraikortasuna etetea, eta, beraz, egungo egoeran, feminizidioen kopurua murriztea.

Horrenbestez, emakumeak oraindik ere politika neoliberal eta basatien biktimak gara, eta esan dezakegu feminizidioa errotik erazteko beharrezkoa dela emakumeen bizi baldintzak aldatzea, gizonen gailentasunaren harremana aldatzea eta legeen eta erakundeen eduki patriarkala desagerraraztea.

CEDEPEM, 'CASA DE LA MUJER DE SOLOLÁ' PROGRAMAREN BITARTEZ

KOSMOBISIOA ETA EMAKUME MAIAK GENERO INDARKERIA PREBENITZEKO.

CEDEPEMek arreta eta laguntza ematen die indarkeriatik bizirik atera diren emakumeei. Prozesuan ekintzak eta estrategiak txertatzen ditu, kosmobisio maian oinarritutako ikuspegitik, kulturarekin, tradizioarekin eta emakumeein koherenteagoak diren praktika guztiak berreskuratuz. Batez ere, temazcalen erabileraren, energiak maneiatzearen, sendabelarren eta beste batzuen inguruko praktikak jorratzen dituzte prozesu horietan.

Sololáko udalerrian indarkeria jasaten duten emakume askok jotzen dute egunero CEDEPEM Emakumearen Etxera laguntza eskatzera. Konfiantzazko espaziotzat dute elkarteak, egun Estatuko organismoak eskaintzen dutena baino handiagoa. Are gehiago salaketaren kultura txiki-txikia den herrialdean, horrelako espazioak indarra ematen die emakumeei.

Honela laguntzen du Emakumearen Etxeak:

- Laguntza eta aholkularitza soziala, juridikoa eta legezkoa emanda, indarkeriatik bizirik atera diren emakumezkoen kultura arteko ikuspegitik.
- Autoritate indigenekin koordinatuta indarkeriatik bizirik atera diren emakumezkoen arreta.
- Emaginek, gida espiritualek, autoritate indigenek eta elkarteetako ordezkariak osatutako babes sarea osatuta.
- Arreta eta osatze mediko holistikoa eskainita indarkeriatik bizirik irten diren emakumeei.
- Arreta, laguntza eta osatze psikologikoa, terapeutikoa, energetikoa eta espirituala emanaz indarkeriatik bizirik atera diren emakumeei.



2-PATOJAS IKASKETA BEKEN PROIEKTUA



Guatemalan garatutako ikasketa beken programa bat da. Banakako dohaintzen bidez, baliabide urriak dituzten neskei, mutilei eta emakumeei ikasteko aukera ematen zaie, "Hezkuntzarako Eskubidea" bermatuz.

"EMATEN DITUGUN BEKEN % 100 NESKENTZAKO ETA EMAKUMEENTZAKO IZATEA LORTU NAHI DUGU"

HEZKUNTZA SUSTATZEN DUGU:

- Neskek eta emakumeek hezkuntzarako sarbidea izan dezaten nahi dugu.
- Aldaketa eragileak sortzean eragiten dugu.
- Ezberdintasunak murrizten laguntzen dugu.

Badakigu gure ekarpena arto-ale txiki bat baino ez dela, baina badakigu bekek bititza aldatzen laguntzen dietela.

"Hezkuntzarako eskubidearen alde lan egiten dugu"

2017KO DATUEN LABURPENA

Bekarekin ikasketan hasi zuten 146 ikasletik, 144k amaitu zuten kurtsoa. Bajak lanean hasi eta herriz aldatzeagatik izan dira.



Dibertsifikazio ikasketan 20 bekadunek amaitu dituzte. Horietatik, 8k batxilergoan titulatu, 11 Perito Contador moduan eta bakarra Ingeles-Gaztelaniazko Idazkari bezala. Guzti horietatik 12 PATOJAS (neska) izan dira.

		LEHEN HEZKUNTZA		OINARRIZKO HEZKUNTZA		DIBERTSIFIKATUA		GUZTIRA
		NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	
HUEHUETENANGO	TALDEAK							
	TODOS SANTOS	1		1	3	6	6	17
	IXTAHUACÁN	1	1	11	5	4	4	26
	AJOMAYA			6	7	8	6	27
	CHIANTLA			13		3		16
SOLOLÁ	NAHUALÁ			1		4	2	7
QUETZALTENANGO	ANH	4		5		3	2	14
SACATEPEQUEZ	S. D. XENACÓJ	4	2	4	2	2		14
	SUMPANGO	6	6	4	2	3	4	25
GUZTIRA		16	9	45	19	33	24	146

2018KO DATUEN LABURPENA

Iaz, ikasturtean hasi ziren 149 beketatik, 144k amaitu dute. Bajak arrazoi pertsonal, familiar eta ekonomikoak izan dira.



Dibertsifikatuko ikasketak 16 ikaslek amaitu dituzte: 10 neska eta 6 mutil. Besteak beste hauek izan dira eskuratu dituzten graduak: peritu/kontularia, elektronikako peritua, Haur Hezkuntzako maisua eta zientzia eta letretako batxilergoak.

		LEHEN HEZKUNTZA		OINARRIZKO HEZKUNTZA		DIBERTSIFIKATUA		GUZTIRA
TALDEAK		NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	
HUEHUETENANGO	TODOS SANTOS			1		3	4	8
	IXTAHUACÁN	1	2	7	5	4	3	22
	AJOMAYA			6	6	13	5	30
	CHIANTLA			11		3		14
SOLOLÁ	CEIBA			13		3		16
	S. L. TOLIMÁN	5		2				7
	NAHUALÁ			1		2	1	4
QUETZALTENANGO	ANH	1		2		1		4
SACATEPEQUEZ	S. D. XENACÓJ	4	2	4	2	1		13
	SUMPANGO	6	6	5		4	5	26
	GUZTIRA	17	10	52	13	34	18	144

3- EMAKUMEZKOEN GIZA ESKUBIDEAK



Euskal herritarrengan hausnarketa prozesuak eta kontzientzia kritikoak sustatzen ditugu, eta ekintzarako eta ekintza eraldatzaileetarako formakuntzak ere eskaintzen ditugu.

Horretarako, proiektu eta jarduera artistikoak, kulturalak eta prestakuntzakoak antolatzen ditugu pedagogia kritiko, dekolonial eta feminista oinarri moduan izanda.

Guatemalaren eta Euskal Herriaren arteko ekimenak eta aliantzak artikulatzen ditugu. Erreferentziatzat Guatemalako errealitatea hartzen dugu, bereziki Guatemalako emakumeek zuzendutako ahalduntze prozesuak, euskal herritarrek horietatik ikasi dezaten.

Cure lanaren beste gakoetako bat, gizarte zibilaren beste erakunde batzuekin sareak eta aliantzak sortzea da, baita erakunde publikoekin ere, horrela, gizarte justuago bat modu kolektiboan eraikitzen aurrera egiten jarraitu ahal izateko.

Emakume anitzak bizi dituzten errealitateak, indarkeriak, borrokak eta aldarrikapenak ikusarazten laguntzen dugu, eta emakumezkoen borroka politiko kolektiboak eraikitzeari ekarpenak egiten dizkiogu, hegoaldeetik eta iparraldeetik.

Hori guztia, Emakumezkoenak ere badiren Giza Eskubideak ezagutarazteko eta nabarmentzeko.

GUATEMALTECAS: JUSTIZIA ALDARRIKATZEN DUTEN EMAKUMEEN AHOTSAK

GUATEMALAKO MUGIMENDU FEMINISTAN ERREFERENTE HANDIA DIREN EMAKUMEEK HARTU DUTE PARTE, ESATERAKO, OTRANS ERAKUNDEKO STACY VELÁSQUEZ VÁSQUEZEK, MUJERES IXCHEL DE GUATEMALA MUGIMENDUKO CRISTINA CHIQUÍN RODRÍGUEZ FOTOKAZETARI ETA AKTIBISTAK, LUCÍA PINTOK ETA BESTE HAINBATEK.

2012tik ari gara lanean EA-LAn Emakumezkoenak ere badiren Giza Eskubideen inguruan, BFAk eta Eusko Jaurlaritzak finantzaturako hainbat proiektuekin. Horrek aukera eman digu gure lana eta jarduerak EAEko hiru lurraldeetara zabaltzera. "Guatemaltecas: Justizia eskatzen duten emakume ahotsak" proiektuarekin batera, "Mujeres alzando la voz" proiektua onartu zitzaigun, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren Elkarbitza eta Giza Eskubideak deialdian. Emakumeei genero gaien inguruko prestakuntzak eskainiko zaizkie, eta aukera emango digu horietan eskuratutako ezagutzak beste emakume batzuegana helarazteko, irratia bitartez, Radio Viniloren bitartez, hain zuzen ere.

Hauen bitartez egiten dugu:

- Prestakuntza jarduerak, aurkezpenak, zine forum saioak eta elezaharrak kontatzeko guneak. Horien bidez, euskal herritarrek ezagutza eta informazioa eskuratu ahal izan dute emakumeentzako eta herritar guztientzako estrategia ahalbuntzaileak ezartzeko, gure gizarteetan oraindik ere nagusi den sistema heteropatriarkal kapitalista suntsitzeko aukera emango dutenak.
- Unibertsitateetako monografikoak, etorkizuneko gizarte langileek gaitasun kritiko handiagoa izateko errealitateari dagokionez, eta, horrela, beren ofizioan eta egunerokoan sortzen aurrean dituzten kausen inguruko kontzientzia handiagoz esku hartu dezaten.
- Aldaketa prozesuetan laguntzea eta horiei bide ematea gizarte justuago, berdinzaleago eta solidarioago bat lortzeko, euskal herritarrek sentsibilizatzeko ekintzen bitartez. Horretarako, askotariko emakumeen partaidetza aktiboa sustatuko da hausnarketa espazioetan, beren eskubideen urraketak salatu ditzaten.
- Eragin politikoa duten prozesuak errazten ditugu, herritarrek mugiarazteko, bai herrialde aberatsetakoak bai pobretuetakoak, arduradun politikoei, ekonomikoei eta kulturei presioa eragiteko emakumezkoenak ere badiren giza eskubideak, giza garapen jasangarria eta berdinzalea defendatu ditzaten.
- Giza eskubideen inguruko hausnarketa teorikoko guneak sustatzen ditugu, eraldaketa soziopolitikoaren aldeko proposamen praktikoak eratzea ekarri dezaketena, bai Guatemalan bai Euskal Herrian.
- Lagundu egiten dugu gizartea demokratikoagoa, justuagoa eta indarkeriarik gabekoa izateko eraldatzen, beharrezko sareak eta aliantzak indartuz, herritartasun global, jasangarri eta berdinzalea eraikitzeko.





Garapenerako lankidetzaren eta eraldaketa sozialerako hezkuntzaren bitartez lan egiten dugu gizarte berdinzaleagoak eta bazterkeriarik eta indarkeriarik gabekoak lortzeko.

GARAPENERAKO LANKIDETZA 20 urtetik gorako esperientzia dugu Guatemalan lanean, eta gure ekintzen helburua Guatemalako emakumeak ahalduntzea, bai banakako mailan bai maila kolektiboan da. Horrela, gizartearen harremanetan eta egituran aldaketa errazten da, boterea modu ekitatiboan eta berdinzalean banatzeko eta egitura patriarkalak suntsitzeko. Gure helburu nagusia Guatemalako emakumeek zuzendutako ahalduntze prozesuak babestea da.

GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA Euskal herritarren kontzientziazio kritiko, dekolonial eta feministaren alde egiten dugu, eta lagundu egiten dugu munduko herritartasunaren alternatibak bilatzen eta eraikitzen dituzten prozesuetan. Asmo horiek indartzen ditugu Euskal Herrira Guatemalako eta haien emakumeen errealitatea ekarriz.

PATOJAS IKASKETA BEKEN PROIEKTUA Guatemalan garatutako ikasketa beken programa bat da. Banakako dohaintzen bidez, baliabide urriak dituzten neskei, mutili eta emakumei ikasteko aukera ematen zaie, "Hezkuntzarako Eskubidea" bermatuz. Nesken eta emakumeen hezkuntzarako sarbidea sustatzen dugu, aldaketa eragileak sortzen eta ezberdintasunak murrizten laguntzen dugu.

"DISKRIMINAZIORIK ETA INDARKERiarik GABEKO GIZARTE BIDEZKOAGOA LORTZEKO LAN EGITEN DUGU"

2017-2018KO PROIEKTUEN LABURPEN TXOSTENA

IRITZI ARTIKULUA



EMAKUME INDIGENEN GIZA ESKUBIDEAK GUATEMALAN

Guatemalako 1985eko Konstituzio Politikoak eta 1996ko Bake Akordioek giza betebeharrak eta eskubideen, betebeharrak eta eskubide zibikoen eta politikoen berdintasuna ezartzen dute bi sexuentzat. Dena den, emakumeen egoerak erakusten du haien bizitza sozializazio eredu araberatik delako, horiek ikasi egiten direla txikitatik hainbat espaziotan, eta gizonen azpian jartzen dituztela. Horren ondorioz, emakumeek planteatutako arazoentzako beharrak eta irtenbideak, normalean, bigarren planoan gelditzen dira, eta, askotan, ezikusiarena egiten zaie. Tradizioz, emakume izaera familiaren zaintzatik komunitateko gunea zaintzera igarotzen da, eta horrek sistematikoki desabantaila egoeran jartzen ditu, eta ez die aukerarik ematen beren baliabide pertsonal, familiar eta komunitateko inguruan erabakirik hartzeko. Beraz, adibidez, emakumeek diru sarrerak dituztenean, ez dute eskubiderik horiek erabiltzeko.

Emakumeen garapen ekonomikorako aukerak urriak izan dira, eta halakoak dira oraindik, oraindik ere arrakala baitago baliabide ekonomikoetarako sarbidean, haien erabilera eta kontrolean. Horrek zerikusia du emakumeek familien, komunitatearen eta udalerrien garapenari egiten dioten ekarpenaren aitortza faltarekin.

Halaber, emakume indigena ugariri zaildu egiten zaie kredituak eskuratzea banku sisteman eta/edo sistema kooperatibistan, ez baitute babes moralik (senarrarena edo familiarena), ezta materialik ere (ez dute ondasunik berme moduan).


Emakumeek nekazaritzari eta elikadurari egiten dioten ekarpen handia gorabehera, horietako gehienak ez dira lurren jabe eta, ondorioz, ez dute erabakitzen zein den horien erabilera nagusia. Ekarpene hori guztia ulertzen da emakumeek gizonari ematen dioten "babes" modura, eta ez da emakumeen zeregina ikusarazten ekoizpen lanari dagokionez, nahiz eta familia osoarentzako beharrezkoa eta osagarria den.

Emakumeak Guatemalako populazioaren % 50 baino apur bat gehiago dira; hala ere, historian zehar baztertu egin dituzte garapenaren etekinetatik, bereziki landa gunetako emakume indigenak. Hona hemen egoera horretan eragina izan duten faktoreetako batzuk:

- Oro har, gizonen soilik dituzte etxetik eta komunitatetik ateratzeko baldintzak; emakumeek zail izaten dute, konpromiso ugari izaten baitituzte eta etxean lan ugari egin behar izaten baitira. Gainera, gizonen iruditerian, uste da emakumea ez zaiela fidela izango espazio mistoetan parte hartzen badu.
- Normalean, trebakuntzaren batean parte hartzean, ez dira kontuan hartzen emakumeen ordutegiak eta lan kargak.



**"EMAKUMEK EZ DUTE
ESKUBIDERIK EGITEN DUTEN
LANGATIK IRABAZTEN
DUTEN DIRU SARRERAK
BALIATZEKO".**



- Emakume indigena gehienak elebakarrak eta analfabetoak dira, eta ez dira espainieraz moldatzen. Guatemalak legeak dituen arren bermatzeko 24 hizkuntza ofizialetako edozein erabili daitekeela, egiatan, gehienetan espainiera erabiltzen da bakarrik, eta horren ondorioz, emakumeek ez dute sarbiderik justiziara, osasun sistemara, hezkuntzara eta abar, ez behintzat berdintasunez eta babes kulturalaz.
- Horri gaineratu behar zaio hedabideetarako eta teknologia berrietarako sarbidea. Oso aukera txikiak dituzte horiek eskuratzeko.

Guatemalan, bazterkeria etnikoa eta lurralde eskusioari genero bazterkeria, indarkeria eta matxismoa gehitu behar zaie, batera baitatoz, eta modu are zabalago eta egiturazkoagoan mugatzen dituzte herritarren eskubideak eta emakumeen potentzialitateen garapena. Genero indarkeria edo indarkeria matxista edonon ageri da.

Hori dela eta, ezin dugu aipatu gabe utzi herrialdearen orban handienetako bat: feminizidioak. Gautemala aitzindaria izan den arren emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerrarazteko politikak sortzen, tamalez, egiatan egunez egun hiltzen, behartzen eta erasotzen dituzte, besteak beste, emakume ugari. Are larriagoa da emakume indigenen kasuan.

Indarkeria egiturazkoa da, normalizatu egin da, ziurrenik gatazka armatuak iraundako urte luzeen eta jasandako injustizia guztien ondorioz. Dena den, pittinka-pittinka, justizia hasi da emakumeen aldeko epaiak ematen, haiei arrazoa ematen. Serpur Zarco kasua garaipen bat izan da, sexu indarkeria jasan zuten emakume indigenen aldeko aitortza bat, baina erreparazioa oraindik ez da iritsi. Hala ere, ari dira urrats txikiak egiten.

Sozialki eta kulturalki, emakume indigena bigarren edo hirugarren mailako herritar bat da. Gizonen jabetza moduan ulertzen dira, baita senarrek beste herrialde batzuetara migratzen duten kasuetan, nahiz eta haiek beste familia bat osatu eta Guatemalan utzitako erantzukizunez arduratzera inoiz itzultzen ez badira ere. Horrelakoetan, neba bat, aita edo komunitateko gizon batek eskubidea sentitzen du (batzuetan beren betebeharra dela uste dute) abandonatutako emakumeari eragiten dioten erabakiak hartzeko.

Azkenik, garrantzitsua hau ere, aipatu behar dugu emakumeek zein zeregin duten erabakiak hartzeko espazioetan; alderdi politikoetan, herritarren batzordeetan eta komunitateko batzarretan. Oro har, emakumeek ez dute erabakiak hartzeko aukerarik, horiek gizonetara mugatzen baitira eta, hortaz, haien interesei erantzutera bideratzen dira. Emakumeak erabiltzen dira ere bozka emateko laguntzako ekintzen truke, eta horrek are larriagoa bihurtzen du emakumeen antolakuntza sozialaren arazoa, are gehiago banatzen baititu. Horren ondorioz, nabarmendu egin behar ditugu apurka-apurka emakumei aldaketa posible dela sinetsarazten dieten adibideak. Ezagutzen ditugu Rigoberta Menchú bezalako kasuak: hura izan zen hauteskunde batzuetara alderdiburu moduan aurkeztu zen lehen emakume indigena. Thelma Cabrera ere aipatu beharra dugu; izan ere, aurrekoaren urratsei jarraituz oso emaitza onak lortu baititu azken hauteskundeetan.

Hori guztia ibilbide txikia da harriz jositako bide batean, emakumei gizartearen esparru guztietan berdintasunaren alde aurrera egitea oso zaila bihurtzen dien bidean. Bide hori elkarrekin egin behar dugu, eskutik helduta, indartsuago izateko eta etorkizun hobe baten alde borrokatzeko.